

LEGORRETA

Goierri

# Patxi Ezkiaga seme kutun

Herriko Seme Kutun izendatu zuten Legorretako Udaletxean ospatu zen ekitaldian


Urriaren 26ean Patxi Ezkiaga Herriko Seme Kutun izendatu zuten. Kultur Etxeari ere Patxi Ezkiaga izena ere eman zioten. 1943an jaio zen Ezkiaga Legorretan eta ordutik literaturaren alorrean lan oparoa eginen du.

Poesia zein nobelagintzan trebatua, sari ugari irabazi ditu

Legorretako idazleak. Iaz Euskaltzaindia-BBK literatur saria irabazi zuen eta dagoeneko kalean da hartara aurkeztutako lana, *Bigarren haurra* hain zuzen ere.

Ezkiagak nobela honetan Euskal Herriko azken 25 urteko historiaren errepasoa egiten du

emakume baten istorioa kontatzen doan adinean. Emakume-ari denbora gutxi gelditzen zaio hezurretako minbiziaz jota dagoelako, horrela egoera horretan «errealitatearen miaketa estetikoak egiten saiatu naiz», dio Ezkiagak, «*Bigarren Haurra* mugako eleberria da».



LUIS JAUREGIALTZO / ARGAZKI PRESS

... Patxi Ezkiaga idazlea.

ITSASONDO

## Mikel Gaztañaga txirrindulariaren denboraldi bikaina

Mikel Gaztañaga txirrindulari itsasondoarrak denboraldi bikaina egin du. Errepideko Espainiako Txapelketa, Bizkaiko Birako etapa bat eta Iruñako Kriteriuma irabazteaz gain, ohorezko postu ugari lortu ditu. Gainera, profesional mailako Espainiako Txapelketan ere

parte hartu zuen eta baita zeresana eman ere. Izan ere, laugarrena izan zen Guillamon, Olano eta Martin Perdigueroen atzetik.

Dena den, Mikelentzat Espainiako Pista Txapelketako puntuazio frogan lortutako bigarren postuak balio berezia du, Llana-

rasen atzetik eta Alzamoren aurretik gelditu baitzen.

Aurtengoa lehen denboraldia izan du elite mailan eta bere iritziz afizionatu mailan osatu duen denboraldi onena izan da. Datorren urtean seguraski Caja Rural taldean jarraituko du Mikel Gaztañagak.

IKAZTEGIETA

## Ibiurko urtegiko proiektuaren oniritzia

Espainiako Ministroen Kontseiluak oniritzia eman zion urriaren 25ean Ibiurko urtegia eraikitzeke lanen kontratuari. Urtegia Orendainen egingo da eta Ikaztegietaz gain, Alegia, Altzo, Tolosa, Ibarra, Anoeta, Irura, Zizurkil, Aduna, Asteasu, Villabona eta Andoain ere urez hor-

nituko ditu. Lanak egiteko aurrekontua 27 milioi eurokoa da eta 7,5 hektometroko kuboko edukiera izango du urtegiak. Nahiz eta berandu hartu den erabakia izan eta lanen hasiera ere bapatekoa ez den izango, urtegia eraikitzeke proiektua abian dagoela esan daiteke.



IKAZTEGIETAKO UDALA

Hamabigarren urtemugan ZORIONAK

Tf./Faxe: 943 65 33 29

Datozenentzat  
zabalik,  
doazenentzat oroigarri

© 943 88 07 39  
Faxe: 943 88 07 39



ARAMAKO  
UDALA



ITSASONDOKO  
UDALA

Egunkaria: haurtxo gaztea,  
etorkizunaren ahots askea,  
herri honen nortasun agiri,  
izan nahiaren gogo-intziri,  
gerta dadila:  
goizerako hurbiltze isila,  
gu zure eske; zu gure bila.

Doinua: Joana Bixenta Olabe

© 943 88 11 70 - Faxe: 943 16 10 45



ALTZAGAKO  
UDALA

Euskal  
prentsaren  
alde !!

© 943 88 37 37  
Faxe: 943 16 10 45

GOIHERRI, S.A.  
San Miguel, 7 20250 LEGORRETA (Gipuzkoa)  
Tel: (9) 43-80 61 90 - Telefax: (9) 43-80 64 42